


MIKEL ZARATE

Etorriaren Zorabioz



IPAR NORABIDEA

Donations



Euskal Biblioteka Labayru




1021375
LITERATURA / N. 2656

MIKEL ZARATE

MIKEL ZARATE

Etorriaren Zorabioz



IPAR NORABIDEA

Olerkiak:

MIKEL ZARATE

© *Mikel Zarateren sendikoak*

© Hitzaurrea eta argitalpena:

JON KORTAZAR

© Edizioa:

Asociación IKERTZ para el
estudio y la difusión de la cultura


Diseñua:

IKEDER, S.L. [www.ikeder.es]

ISBN: 84-88916-85-X • LECE CORDAILUA: BI-512-04

Argitararzailea da eskubide guztien jabe. Beraz, horren aldezaurreko eta idatzizko baimenik gabezin da argitalpen honen osoko zein zatikako aldakirik atera, ez mekanikazko, fotokimikazko, elektronikazko, iman-bidezko, eletra-optikazko, argazki-aldakizko ez beste inolako eratako irudifuntza-modutan eraso edo zabaldu.

<i>Euskal herriaren zorabioan</i>	9
JON KORTAZAREN hitzaurrea	
· Etorriaren zorabioz	43
· Gure hizkuntzaren sorreran	44
· Dei irrintzinenaren bozkarioz	45
· Oroitzapenezko glosak	46
· ... ez da poeta	49
· Utikan!!!	52
· Bat bitan banatzen zait	53
· Denbora hegalarian	54
· Euria!	55
· Mendigoizalecn bizipenez	56
· Patuaren ziztada	57
· Erregenez	58
· Bere ilargira joan da	59
· Hiriko dolmena	60
· Kaletarren iraultza	61
· Betiko leloaren nazkaz	62
· Eta...	64
· Baikor ta Ezkor	65
· Vesubio	66
· "Batzarritis"	67
· Telebisio arrotza puskatzen	68
· Oi, euskal liburu!	69
· Gaurko gazteen doinu berri bizi baten garrasiz	70



H I T Z A U R R E A

EUSKAL
HERRIAREN
ZORABIOAN

Jon Kortazar

Historia txiki bat Utopiaren fantasian eta Etorriaren zorabioz liburu bikiak Etorriaren zorabioz Hitzaren zorabioan Azken irudia



GAZTE IZANGO NINTZEN NI, ez dakit, beharbada 21 urte bete berri. Jesus Etxezarraga eta biok autoa hartu eta Lejarrenera hurbildu ginen arratsalde batez. Mikel Zarate gaixorik zegoen etxean, stressak jota. Jakin aldizkarian hasi berria nintzen ni eta bere poema liburu baten kritika argitaratua nuen. Eta han esandakoaz mintzatu ginen, Mikel beti bezala irribarretsu, adar jotzaile eta, batez ere, hezitzaile agertu zitzaidalarik. Inork ez genekien elkar ikusia genuen azken aldia zela, inork ez zuen horrelakorik susmatu. Arratsalde hartan izango zen, beharbada, *Etorriaren zorabioz* liburuaren originala eman zidanean. Haien tapa gorriok geroztik jarraitu naute nire bizitzako pausurik garrantzitsuenetan, han eta hemen, beti agertzen zen testua, eta ondo gordeta nuen. Mikelek berak azaldu zidanez, lehiaketa batera bidalia zuen, uste dut gaurko BBKak eta Euskaltzaindiak atontzen duten Felipe Arrese Beitia sarira, eta 1978. urtean, ezaguna denez oso lehiakide zalea baitzen Mikel Zarate, nor gehiagokari omana. Irabazi bazuen ere, ez zen argitaratu liburua, eta "Lexarreta" ezizenezaren azpian, berak ohi zuen moduan, eskaintza hunkigarria idatzi zidan:

Egunon,
Jon,
lagun on
eta fin.
On egin!!

“Egunon, /Jon, / lagun on/ eta fin./ On egin!!”

“Lagun on”: ez dira hitz merkeak, herentzia gisa utzitakoak izan ez baziren ere. “Lagun on”, eta hitz bion zentzu sakona betetzen ahalegindu naiz urteotan, Mikeli zor niona berriro itzuli nahiz, omenaldien bidez, ikerketen bidez, bere izena eta izana zabaltzeko egin ditudan ahaleginen bidez.


1979ko uztailean Luis Haranburu Altunak hitzaurre berezi bat jarri zion *Utopiaren fantasian* deituriko liburuari, Mikel Zarate-
ren argitalpenen artean azkenari. Poemaz eta prosa poetikoz osaturiko liburua da, eta geroago hartaz hitz gehiago egin beharko dugu, gaur aurkezten duguna eta bera oso bateratuak agertzen baitira, bikiak balira bezala. Hitzzaurre horretan datu garrantzitsu bat eman zuen Haranburu Altunak. Hauxe esan omen zion Mikel Zaratek berari:

“Liburu hau inprimategian zegoelarik, Mikel Zarateren heriotzaren berri zabaldu da Euskal Herrian zehar.

Azkenekoz, Txillardegik Donostiako Igeldoan bere nobela presentatu zuen eguncz ikusi ginen elkar [ziurrenik *Huizeaz bestealdetik*, 1979, nobelaren aurkezpen eguna izango zen]. Ez ginen oso lagunak, oso kontatuak dira elkar ikusiriko paradak, baina azken ikustaldian, idazle multzo abigarratu hartan denekin zuen hitzegin beharra, denei zien zerbait adierazi beharra; presa zuen Mikelek, agian bere sortearen susmoa zuen. Baserrian, bere jaiotetxean, erretiraturik zegoela esan zidan —*stress* delakoa edo bizitza murrizt honen dardarazioa— eta lau eskueskribu argitaratu gabeak zituela, lau.

Handik hiru egunetara artu nuen “Utopiaren... eskueskribua”.

Testigantza honen arabera, beraz, lau eskuizkribu zituen argitaratu gabe Mikelek bere azken hilabeteetako lanaren ondorioz. Bat, ez da dudarik, *Utopiaren fantasian* litzateke, bestea gaur aurkezten dugun argitaragabeko liburu hau *Elorriaren zorabioz*, eta beraz, beste bi leudeke bere paperen artean ikertzaile begi fin baten itxaroan. Uzta ez dugu amaiturik bada.



UTOPIAREN FANTASIAN ETA
ETORRIAREN ZORABIOZ LIBURU BIKIAK

LIBURU OSO HURBILAK DITUGU BIAK, ez bakarrik izenon paralelismoan izenburuek salatzen dutenez, bien arteko lotura es-tuagoak daudelako baino. Testu batzuk, poema batzuk zehatza-go izateko, batetik bestera igaroak dira. Ez dakigu zein izan zen lehena, zeinek zeini eman zion zubia izateko beta eta parada, baina garbi dago gaur aurkezten dugun *Etorriaren zorabioz* dei-turiko liburuko hainbat poema agertzen direla argitaraturik *Uto-piaren fantasian*, eta beraz, testuaren genetika aztertzeo orduan oso interesgarria izango litzateke jakitea zein izan zen lehena.

Nik esango nuke *Etorriaren zorabioz* izan zela lehena idazten eta gero hemengo poema batzuk *Utopiaren fantasian* erabili zire-la, atonduz eta bersortuz, kontuan hartu behar dugu argitaratu-rik ezagutzen dugun liburu hau, hibrido bat dela poemaz eta prosazko testu liriko osatua, antzerki labur bat ere agertzen delarik bertan; bien arteko nahasketaren artean sortua. Horrela-ko baieztapen bat egiteko orduan hauek lirateke erabiliko nituz-keen arrazoiak:

I

Badakigu 1978. urterako idatzirik zegoela *Etorriaren zorabioz*, eta *Utopiaren fantasian* liburua beranduago agertu zela, Haranburu Altunari kasu egiten badiogu.

II

Liburu batetik bestera igarotzen diren testuak *Etorriaren zorabioz* liburuko azken aldi-ko poemarik luzeenak dira, eta argitaratzen den liburuan moldatuak agertzen dira. Gerta zitekeen bigarren honetan moldatuak izatea, baina ez du ematen. "Dei irrintzinaren bozkarioz" poema, Detxepareri eskainitako sonetoak toki egokia du liburuaren lehen aldean euskarari eta euskal hizkuntzari egiten zaizkion omenaldien artean, eta beraz, egitura aldetik toki egokian zegoen, eta ondoren, beste testu batekin, "Kaletarren iraultza" deiturikoarekin nahastuz ematen da.

III

Egitura aldetik pentsatuagoa ematen du *Etorriaren zorabioz* liburuak. *Utopiaren fantasian* "utopia" hitzak eman die txatalei bata-

suna, baina bilduma itxura handiagoa du liburu honek, aurretiaz idatzirik ziren txatalen bilketa lana balitz bezala. Geroago ikusiko dugu, baina, *Etorriaren zorabioz* liburuak aurkezten duen egitura ez dela erabat batua.

Etorriaren zorabioz liburuko poema hauek daude bietan, moldez eta alde agertuak: *Telebista arrotza puskatzen* [UF, 33; EZ, 27]; Hiri berriko utopia garrantsez deituriko poema Hiriko dolmena deitzen da gure liburu honetan [UF, 41; EZ, 19, poema hau laburrago agertzen da aldaki argitaratuan, eta izenburua aldatua], *ETA...* [UF, 69; EZ, 23, aldaki argitaratuan prosazko txatala gehitu zaio]; *Utopiaren fantasian* liburuan Euskal literaturaren utopian [UF, 83] deituriko atalean, *Etorriaren zorabioz* liburuko poema bi biltzen dira: *Dei irrintzinen bozkarioz* [EZ, 5] eta *Kaletarren iraultza* [EZ, 20]. Horrela bada, *Etorriaren zorabioz* laneko zenbait pasarte erabiliko ziren beste lana sortzeko, ehuntzeko eta bilbatzeko orduan. Baina paragrafo oso horren helburuak ez luke bakarrik bata eta bestearen arteko lotura adierazi, baizik eta adieraziko luke Mikel Zaratek *Utopiaren fantasian* liburuari buruz Haranburu Altunari esandakoak autopoetika gisa berdin balio duela *Etorriaren zorabioz* irakurtzeko orduan.


Irakurri dezagun Mikel Zarateren hitzak, utopia dela-eta Haranbururi esandakoak:

“Utopiaz ihardun genuen beste solasen artean eta bere liburua-
ren tankraz galdetzerakoan geure arteko Utopiazalerik nonbra-
tuena aipatu nion.

— ‘Zer arrai! Hi ere Monzonen bidetan habiatu haiz!’

— ‘Nik ez diat utopia konkretu batetaz idazten. Euskal Herriak
duen beharretaz baino’.

Ilitzak gogoan hartzekoak dira Mikel Zarateren *Etorriaren zo-
rarioz* hau ulertu nahi badugu: *Euskal Herriak duen beharretaz*
idazten duen gizakiarekin egingo baitugu topo.



ETORRIAREN ZORABIOZ LIBURUA 23 poemaz osaturiko hitzaren eta hitzezko jaia da, Mikel Zaretek poesia idazteko zuen asmo eta joera guztien pausaleku eta adibide, mundu baten ikuskera ematen duen liburua. Bere pentsakizun munduen eta obsesioen laburpen ederra. Formen eta esanahien adierazpide egokia, Euskal Herriak krisi garai batean bizi izan zuen giroaren berri, mito pertsonalen abiaburu eta helmuga... Bere poesia lana talaia-tik ikusteko aukera paregabea.

Euskal Herriak duen beharretaz idatzi nahi zuen Mikel Zaretek, guk bizi dugun mundua "utopiazko mundutzat" zuen: euskara hein nagusi batean eskolan, eta kalean zabaldurik, euskal telebistarekin (berak "nire utopiazko euskal telebistan" jartzen zituen euskaldunak berbetan), autonomia aurreratuarekin...

Azken urte hauetan teorikoen artean asko zabaldu da literatura-ren zereginei buruzko eztabaida. Literatura kritikan aditu direnek baieztatzen dute azken urteotan literaturaren helburua ez dela soilik testuak sortzea, sorturiko testuen bidez kulturari eta munduari errealitate ikuskerak ematea baino, literatura zeinuen sistema bat

da, kulturari erroturik ageri dena, eta bere helburua ez da testuen esparruan gertatzea kultura bideak erakustea baino, eta bizitzeko eta bizitzan mugitzeko mundu ereduak sortzea baino.

Euskal Herriko beharretaz hitz egiten duenean Mikel Zaratek, Frankoren heriotzaren ostean zer etorriko ote zen jakin gabe, zabalitzen ari zen mundu batentzako ereduak eskaintzea da Mikel Zaratekren poesiaren helburua... Nahi bada gure munduan, 1979. urteko mundu korapilatsuan, bizi ahal izateko mezu zehatzen agerpena. Nahi bada, eta hitza zabalegia ez balitz oso egokia genuke, "mito nazional(ista)" batzuk zabaldu nahi ditu bere poesian. Zeintzuk lirateke mundu ereduak, mito horien agerpena?

Bada *Etorriaren zorabioz* liburuko irakurletan agertzen direnak hauek lirateke:

- | Euskarari zor zaion maitasuna
- | Poesiaren nagusitasuna
- | Askatasunaren beharra
- | Izadiaren gardentasuna
- | Haurtzaroaren gorazarrea, idealizazioaren eta materialismoaren arteko gatazkan haurrek badakitelako aukeratzen
- | Hiria ulertze beharra

- | Gazteen nagusitasuna prozesu historiko horren barnean
- | Euskal Herriaz kanpokoek egin dituzten topikoen aurkako jocra, eta —orain esan den legez— dekonstrukzioa
- | Herriaren bizi nahia, iraupen nahia

Akats eta lorpen guztien gainetik Mikel Zaratek badu niretzat bertute handia bere idazkera ulertzeko orduan: saiatu zen ideologia bat komunikatzen, *Euskal Herriko beharretaz* hitz egiten zuzenean sinesmen, edo nahi bada, ideien korpus bat antolatzen ahalegindu zen; Frankoren ondorencan, egoera berri baina era berean gatazkatsuan, ametsez betean eta minez sortuan, euskaldunek (zehatzago izateko, bere irakurleek) erabili beharko zituzten ideien multzoak zabaldu zituen. Eta ideia bilduma horretako laburpen zolia dugu *Etorriaren zorabioz*.

Beste kontu bat litzateke hauetaz egin dezakegun eta egiten dugun balorazioa. Hitz egin dezakegu ideia horiek orijinalak izan direnik edo ez, edo Mikel Zaratek baino lehenago edo indartsuago beste batek azaldu zituenik, edo eraginik izan ote duten, edo norainoko gaurkotasuna gorde duten. Gabriel Aresti dut gogoan, eta agian, ildo beretik doazen honen ideiek arrakasta handiago lortu dute gizartean. Mikel Zarateren ideia munduaren originaltasunaren balorazioa ez da tratatu nahi genukeen gaia, baina bai argi utzi nahi dugu bere poesiaren eta garaiko giroaren arteko lotura ezinbestekoa dela, eta gizartearekin mantentzen duen elkarriketan ulertu behar dela bere sorkuntza poetikoa.

Ideien multzoa aipatu dugun momentuan liburuaren nondik norakoak azaldu ditugu: horiek dira gai nagusiak, eta horietan aurkitzen da liburuaren egitura.

Euskarari egindako omenaldiaz hasten da liburua, eta bera da atalik egituratuena, bilduman batasun handien duena: *Etorriaren zorabioz*; *Gure hizkuntzaren sorreran*; *Dei irrintzinaren bozkarioz* (Detxepareren ohorez egina); *Oroitzapenezko glosak* eta agian, sail honetan sartu beharko genuke baita ere ...*Ez da poeta*.

Ondoren zabaltzen da sail askoz ere pertsonalago bat, sexu munduarekin, sexualitate pertsonalarekin lotu dezakeguna, bigarren poemako sexu mundua Askatasunaren alegoria bihurtu izan ez balu: *Utikan!!!* eta *Bat bitan banatzen zait* poemak osatuko lukete.

Hurrengo saila izadiaren deskribapenarekin loturik dago, baina era berean denboraren ikuspegi existentzialista ematen du: *Denbora hegalarian*; *Euria!*; *Mendigoizaleen bizipenez* poemez osaturik dago. Sail honetan lantzen da beste gai bat: idealismoaren gaia, esan nahi da, poetak galdetzen dio bere buruari zein ote den errealitaterik benetakoena, amesten duguna edo begien aurrean duguna, bide hategi kontsumismoaren eta idealizazioaren arteko kontrajarpena egiten duelarik: *Bere ilargira joan da* poemak agertuko lukeen moduan.

Izadiarekin eta euskal ohitura eta sinesteekin jokatzeko duen poema bat dugu zubi moduan: *Patuaren ziztada*, eta honekin

batera lotzen dira Errege gauarekin loturik diren hurrengo poema biak: *Erregenez* eta *Bere ilargira joan da*. Agian, Lauaxeta gogoan zuela idatziriko poemak ditugu aurreko biak.

Hiriko dolmena poemarekin hasten da liburuko bigarren atala, gaurkotasunarekin, hiriarekin, gazteen munduak ekartzen duen esperantzarekin lotuagoa agertzen dena. *Kaletarren iraultza*; *Betiko leloaren nazkaz*; *ETA...*; eta geroago agertzen diren *Telebista arrotza puskatzen* eta *Gaurko gazteen doinu berri bizi baten garrasiz* poemek garai hartako gaurkotasunaz Mikel Zaratek agertzen duen zentzua erakusten dute.

Bigarren zatiko erdi aldera hiru ateraldi biltzen ditu poetak: *Baikor eta ezkor*; *Vesubio* eta *Batzarrilis*, hiru poema labur, hiru ideia sinpleren agerbide.

Liburua bukatze aldera kokatzen da *Oi euskal liburu*, hasierako gaiarekin lotura egiten duen poema.

Bere mitologia, ideien korpua, azaltzeko orduan ametsak eta errealitateak, izadiak eta hiriak, etorkizunak eta gaurkotasunak kontrastetan ari dira: Baikor eta ezkor ari da, era berean, bietatik zein aukeratu jakin gabe Mikel Zarate, baserria maitatuz eta hirian bizi beharrez, euskara zaizinduz, hori bai. Baina munduaren ikuskeran haren dialektika indartuz beti ere. Eta dialektika horretan bizi du bizitza, *Vesubio* poeman adierazten duen moduan:

“Orain bare, gero urduri,
gure bihotzaren iduri”.

Mundua, eta garai hartako liburu famatu batek horrela esaten zuen, bitan banatzen da, eta bien arteko kinka da Mikel Zarate-
ren poesiak azaltzen duena, bien artean kokaturik izana.

Mundu berri bat agertzen zen, "Berterretxeren kantoriak" ba-
ladaren egileak ere mundu berri bat begien aurrean zuen mo-
duan, eta honek ere adierazten du zein den berak berritasmarean
aurrean sentitzen dituen beldurra eta ezinegona. Krisian diren
munduak gogorrak izaten dira, ez baitakigu zer gertatuko den
aurrerantzean. Eta horrelako mundu bat zuen Mikel Zaratek.
Haurgintza minetan nobelak garbi utzi zuen idazleak mina zuela
Euskal Herriko egoeraren aurrean, eta mina zela haurgintza be-
rri horretan gertatuko zena. Mundu bat, tradiziokoa bukatzera
zetoarren, eta beste berri bat, jakin ez genekiena, sortzear zegoen.
Mundu politiko usteldu bat ere bukatzera zetoarren, eta beste aro
globalago bat, zabalago bat hasteko zegoen.

Mundu aldakor horretan garbi zituen Mikel Zaratek baikor eta
ezkor, dialektika bizi baten egon behar zuela, beharrezkoak zi-
tuela mundu biak. Lehengoa eta oraingoa, beharrezkoak bizitze-
ko eta mundua aurrera eramateko.

Ideiak sendotu nahi ditu, baina, bere liburuetan: ikusi dugunez,
dialektika hori maiz azaltzen du. *Etorriaren zorabioz* liburuko
lehen poemak, liburuaren izenburua bera daramanak, argi uzten
du nola gauzatzen den bere poesia:

“Arrabioaren laborriz,
 desespero hutsean[...]
 bozkarioaren oskorriz,
 esperantza betean [...]
 amodioaren bultzada gorriz,
 herriaren iraupenean”

Desesperoa, esperantza, iraupen nahia. Hiru ardatz nagusi bere poesian, bere garaiaren aurrean izan behar zuen jarreran. Herriaren iraupena izango litzateke, dena dela, idazlearen kezkarik sakonena. Horregatik agertzen du gazterian duen konfiantza nagusi hori:

“Unibertsitate zaharreko zemento eraldundua
 arrakalatu egin da gazteria herriaren garraisiz
 kutsadura grisaren barne eztanda irakinean.
 Hau ezinaren eginaren
 ezustezko bozkarioaren gainezkadura!”

Garai ilunen aroan Mikel Zaratek garbi du gazteriak osatuko duela mundu propioa, berriz euskararen inguruan, herri batu bat, agian independentziaren mugetan, agian, bizitza berri baten seinaleztat. Ez da zalantzarik buruko pertsonalak direla horiek, eta niaren nagusitasuna ezin ukatzekoa dela poesia honetan... Baina utopiak bultzatzen du poeta, azkeneraino bultzatu ere:

“nire ametsaren itxaropenezko atseginetan”.

Bertso horretan legoke Mikel Zarateren ideien munduaren laburpena: "nire" lehenik, nola ez?, mundu propioa azaldu eta agertu nahi den neurrian; ametsa ondoren, mundua ametsetzkoa ikusten baitu idazleak, eta ametsaren indarrak osatuko lukeelako erlijio katolikotik hurbil dagoen beste egoera baten nahiak; itxaropena etorriko litzateke gero, ametsa eta itxaropena biak bietara osatzen dutelako mundu nagusi horren bidea, eta atsegina, azkeneko, munduaren ikuskeraren borobiltasuna agertzen duena, zeren kezka baitira munduan, kezka etorkizunari buruz, baina etorkizuna utopiaz jantzita etorriko da, eta bere pausuak seguruak izango dira.

Poema liburuaren atal-aurreko jartzen den poemak, Arrese Beitiaren poemak ere horixe adierazten du, Euskal Herrien arteko batasuna, eta batasun hori lortuko dela uste du idazleak.

Aroaren zorabioan bizi da idazlea baina: baikor eta ezkor, *Vesubio* bezala, bihotzak ez dakiela norantz mugitu, bidegurutzean, eta gizarte herri baten jaiotza bizi delarik.

Gizarte horren ezaugarrietako bi izango dira bere izaera hiritarra eta bere kontsumismoa... Gai biak tratatu zituen bere nobelan ere, eta garaiak agintzen zuen neurri batean. Iliriaren nagusitasuna atsedean aldirik gabe etorri zetorren joera zen. Eta Mikel Zarete hori hurbiletik bizi zuen, bere jaioterri zen Lezamatik: Lezamako trena sinbolo bat zen, agian, mundu orekatu baten sinboloa, herri tradizionala hortxe bizi zen trenbidearen ondoan, baina trenbideak egin zuen bere lana eta mundu tradizionalaren bihotzeraino heltzeko modua zuen. Eta jada, komunikazio bide-

ak ugaritzen ari ziren, industriak bigarren edo hirugarren bultzadaz bizi zuen Bizkaian, eta gaztaroan ezagututako mundua aldatzera zetorren, eta arin gainera.

1968ko iraultza kulturalaren ondoren, hiriak modernitate berria aurkeztzen zuen, mundu anglosaxoiaren nagusitasunarekin, moda berriarekin, musika eta kulturaren espresio berriekin, kontrakulturarekin... Mundu tradizionalak zer ahalko zuen beste horren aurrean? Suntsitzera zetorren? Edo izango ote ziren beste moduko irteerak aldaketa horren guztiaren aurrean? Gaur egunetik ikusita, beldurrok eta kezkok zentzu gabekoak dirudite, baina pentsakizun tradizional batek sufritu egin zuen garai haicetan etorri behar zuenaren aurrean. Eta ezinbestekoa zen berria onartzea, hiriko munduan bizitzea, Mikel Zaratek berak ere hirian ematen zituen eskolak, hirian egiten zuen bere bizitzako zati handi bat... eta onartzera behartua zegoen munduak eskaintzen ziona. Nabiz eta hiria itsusi ikusi, bere zementu eta kutsadurarekin... Aitortu beharra zegoen, gainera, baserri mundua ez zela agertzen zen bezain paradisuakoa.

Kontsumismoaren gaia bestelakoa zen, krisi soziala (petrolioaren krisiak sortu zuen krisialdi ekonomikoaren barnean) eta krisi politikoa (Francoren heriotzaren ondorengo urteak ziren, azken batcan) nagusitzen ziren heinean. Kontsumismoa ateetan zegoen, eta telebista zen garai hartako munduaren profetarik agerikoen... Bukatu zen elkarri begira egotea familian, orain familia osoa biltzen zen elkar begiraturik gabe, telebistarantz begira...

Mundua aldatzera zetorren. Eta horregatik, beharbada, iragarle faltsuaren zeinua ematen dio Mikel Zaratek telebistari, horregatik puskatu behar hori, horregatik, azken batean erromeria tradizionalaren goraipamena:

“betiko telebisio
berdin ezberdina ikusten,
gure telebisioa sortzen,
telebisio arrotza puskatzen,
telebisio arrotza puskatzen,
telebisio arrotza puskatzen...”

Telebista arrotzaren aurrean Mikel Zaratek euskal liburua jartzten du, hari aurre egiteko moduan, haren deusuzaren aurrean egiaren adierazpide gisa:

“zeuk jartzen dituzu
nire egiak
nire etorriaren
ekincan
hizlari.
Oi, euskal liburu...!”

Bere egiak, horixe da Mikel Zaratek aurkeztu nahi dituenak, eta *Etorriaren zorabioz* honetan horixe egiten saiatu da, benetako igarlearen moduan bere egiak adierazi, Euskal Herri berri baten itxaropenezko ametsaren utopian.

MIKEL ZARATEREN POESIA ULERTZEKO MODUA aldakorra da eta Leklektikoa. Mundu baten agerpena den neurrian, aurpegi anizduna da, eta bere espresio poetikoak alde desberdinak ukitzen ditu. Espresio moldea sortu nahi du, eta mundu berri baten atarian egonda, mundu horren espresa moldea adierazi nahi du. Baina ikusi dugu bihotza erdibiturik duela mundu berriaren eta mundu zahararen artean, hiriko mundu berriaren eta baserriko munduaren artean, aldakuntzaren eta betikoaren artean, berrikuntzaren eta tradizioaren artean.

Mikel Zarateren poesia irakurtzen dugularik, era berean ikusiko dugu mundu berri bat adierazten espresamolde berriekin, eta bertsolariaren miresmena agertzen. Europako poesia maitatuz, edo euskal poesiaren molde zaharra gurtuz, eta biak batera agertzen dira, era berean, momentu berean, bere poesiagintzan.

Lauaxetak aspaldian esan zuen bere euskal poesia Europako poesiaren ikutuarrekin mamitzen zuela, eta, hala eta guztiz ere, euskalduna zela, ez soilik euskaraz idatzia zegoelako, baizik eta Europara begira egonez, ez zuelako bere sena galtzen, baizik eta sena sakontzen zuen. Eta euskal herriko poesia tradizionalaren

eta Europako poesia simbolistaren arteko zubia eraikitzen hasia zen Lauaxeta.

Ildo horretan jarraitzen badu ere, Mikel Zaratek beste kutsu bat eman dio bere poesiari. Lauaxetak ez bezala, bertsozaritza maite du, genero horren ironia, gencroaren etorria, eta moldearen irtenaldia, euskal umore eta senaren ikur gisa.

Baina, Lauaxetak simbolismoa maite zuen moduan, Mikel Zaraterengan kontraesana dago: era berean maite ditu erromantizismoaren molde zaharkituak, eta etorriaren gorazarrea egiten du, hitzak bultzatuko balu bezala idaztera, eta indar handiz etorria datorren moduan idaztera, eta erromantizismoaren bidetik agertuko litzateke Felipe Arrese Beitia-ri egin dion omenaldia, hizkuntzaren maitasunak bultzaturik (agian, hizkuntzari dion maitasunak bidali du bere idazkera erromantizismora, eta ez alde-rantziz), eta abangoardiako molde berriak, hizkera laxoa, metrikarik gabeko bertsoa, irudia eta poesia lotzeko gogo...

Hitzaren zurrunbiloan, etorriaren ametsean Mikel Zarateren poesia mugarik ez duen ibaiaren antzeko da. Esanahia, gorago esan dugun legez, "mundu ereduak" sortzeko gogo garbi ageri bazaio ere, hitzari garrantzi handia ematen dio. Hitzaren jokoan, hitzen zorabioan, joan-etorrian sortzen du Mikelek bere poesia-
ren zutabeetariko bat.

Liburuaren hasiera bera, oso esanguratsua da esaten dugun harira baitator zuzen-zuzenean:

“Etorriaren zorabioz,
 zorabioaren etorritz,
 etorriaren joan-etorri astunean,
 joan-etorri astunaren arrabioz,
 arrabioaren laborriz,
 desespero hutsean
 etortzen dira
 orri zurira”

Ikus dezagun nola eratzen duen ahapaldia: nola jokatzen duen csandako hitzekin, nola eratzen duen joan-etorria, bertsolarien teknika bat gogoratzen duen mugimenduan: lehen ideiarene bukaera hartzen du bigarren ideiarene hasiera gisa: “etorriaren zorabioz” ahapaldia hasten duten hitzak hartu eta alderantziz ematen du hurrengoan, “zorabioaren etorritz”, azken hitz hartuko du ondoren ideiarene jarraipena emateko: “etorriaren joan-etorria astunean”, berriro hartuko ditu azken hitzok, idcía berriari pausu emateko, “joan etorri astunaren arrabioz”, eta dantzak bere amaiera ematen du azken hitz horrekin, “arrabioaren laborriz”, eta dantza eta kontradantza, pausu eta kontra- pausu, aurriskuak eta atzeskuak bukatu ondoren ematen dio ahapaldiari amaiera, esan nahi da, ahapaldiak osatzen du bere mezua. Hitz-jokoaren ostean, izcnen dantzaren ostean, aditzak esanahia dakar: “desespero hutsean/etortzen dira/ orri zurira”.

Etorriari sinesten duela Mikel Zaratek esan dugu, eta neurri baten egia da. Baina gero ahapaldiak guztiz paraleloan eratzen di-

tu. Lehen ahapaldiko lau bertsoak errepikatu egiten dira hurrengo ahapaldi bietan, eta, Lauaxetarean gertatzen zen bezalatsu, paralelismoak eta arkitektura pentsatu batek ematen dio joko bere poesiari. Eta bere poemetan mugimendu bi nabari ditza-kegu, errepikapenaren pilaketaz osatzen dena, eta aldakuntza txikiekin osatzen den esanahia.

Eta hala, etorria makurtu egiten da ahapaldiaren egitura finkoan. Eta bariazioaren jokoan eratzen ditu Mikel Zaratek idazkera- ren bizi eta poza, agonia eta borroka. Hitzak etortzen dira, bai, baina “desespero hutsean”, “esperantza betean”, “herriaren irau- pengan”.

Etorria eta poesia, azken batean, horretarako baitira, herriaren iraupenean sinesteko moduak. Izacra eta hizkuntza, identitate- ta hitza, lotuak baitaude Mikel Zarateren poesian, eta hori ere ideia erromantiko bat da azkenean.

Pilaketa eta hitzen jokoak bada bere poesiaren oinarrietako bat, ez dira falta Mikel Zaraterenean, poesia narratiboa, eta narra- zioaren barnean agertzen den sinboloen tratatubidea. *Oroitzape- nezko glosak* deituriko poeman, adibidez, Mikel Zaratek bere jaiotza kontatzen du; dena dela, garbi utziz, mundura jaiotzea eta hizkuntzara jaiotzea gauza bera dela:

“Amak zidan
niri ere,
Felipe,

amak bakarrik
 euskara hutsik
 irakatsi,
 etxeko
 errugabeko
 bizialarguntza itotan
 aita ta presondegi
 zituclarik
 egunero gogotan”

Narrazioaren barnean, autobiografia osatzen du Mikel Zaratek eta bizibidea, azken batean, hizkuntzaren bizibidearekin lotzen baitu.

“Cero, badakizu,
 ez nendin endekatu,
 endekatzen herri
 herri izaten baita beti,
 izatea izanez
 nahi nuen zaindu”

Adibide honekin frogatu nahi nukeena zera da: badagoela Mikel Zarateren poesian etorriari buruzko iritzi bat, sinesten duela etorrian, baina, ondoren, poema idazteko ordua heltzen zaionean, borondate irmo batek zuzentzen duela poema, eta etorriak ez duela poemaren nondik norakoa osatzen, baizik eta kanpotik etorri zaion borondate horrek. Esan behar duenak moldatzen du

pocma, idazleak aurretiaz jarri duen moldapenak. Horrela gertatzen da, adibidez, *Gure hizkuntzaren sorreran* deituriko poeman. Idazleak hizkuntzaren sorrera momentua adierazi nahi du bere poesiaren bidez. Asmatu egiten du hizkuntza sortu zen une miresgarri hori: Oteziaren teoriak daude idazlearen buruan, eta harri aro mitiko bat, Gabriel Arestiren poesiarekin lotuko lukeena Mikel Zaratearen lana. Horretarako silaba bakarreko hitzekin jolasten du poetak, eta horretan euskararen sorreraz filologoek agertu dituzten iritziekin bat dator. Haien ustetan hizkuntza monosilabikoa omen zen hasiera-hasieran euskara. Eta, horrela, lege bat jarriz, hau da silaba bakarreko hitzak erabiltzeko bere buruari jarritako legearekin idazten du Mikel Zaratek pocma:

“Zer?
 Hats
 ur
 su
 lu”

Garbi dago idazlearen borondateak, edo buruari jarritako legeak agintzen duela hemen, eta horrela, toki gutxi uzten zaio etorriari, nahiz eta etorriaren gorazarrea egin.

Kontraesan bera izango genuke sonetoen erabilpenean. Etorriari toki gutxi uzten dioten ahapaldiak dira sonetoak. Eta Mikel Zaratek sonetoak idatzi nahi ditu eta egin egiten ditu: *Dei irrintzi-naren bozkarioz; Bat bitan banatzen zait...*

Hizkuntza minorizatuetan bada idazleen artean gurari bat: literatura horretan eman ez dena, baina inguruetan (“normalduak” deiturikoetan) eman dena hizkuntza minorizatuan ere ematea. Eman dezagun euskaraz ez dagoela nobela poliziakorik, bada nobela poliziakoak sortzen saiatuko dira idazleak, edo ez dagoela ipuin fantastikorik, edo itsasoari buruzko epikarik... bada, genero horretako lanak sortzen saiatuko dira idazleak. Jarrera hori oso normala izan zen Franco hil osteko garaietan. Mikel Zarate ere horrelako jarreraren menpe dagoela esan dezakegu sonetoak idazten jartzen denean. Euskaraz ez zegoen ez soneto askorik, urri eta gutxi ziren euskaraz idatzitakoak. Beraz, agertu egin behar zen euskara gai zela horretan ere, trebea edozer adierazteko.

Eta trebetasun adierazpen horretan Mikel Zaratek zuzen jotzen du poesia berri baten alde. Abangoardiarekin lotu dezakegu? Bada bai, eta neurri berean, ez. Egia da Mikel Zaratek kaligramak maite dituela, esan nahi da, hitzen bidez irudiak sortzen dituela, hala nola *Hiriko dolmena* deituriko poeman, non hitzen bidez, edo hitzen letren bidez, adreiluzko etxe baten itxura duen poema osatzen baitu.

“maitemaiteizandutnirehiria
etanirehirikobizitzaberria”

Hiriaren maitasuna agertuz hasten den poema da hori. Baina kaligramez aparte, eta berriro, kaligramak poesiaren alde jokariaren lotzen ditu idazleak, ez dago abangoardiaren kutsurik.

Egia da herritasunaren alde egiten duela poetak, eta *Kaletarren iraultza* deituriko poeman bilatzen duela deskribapen tremendista edo abangoardiako espresionismoarekin lotzen dena.

“Unibertsitate zaharreko zemento erdaldundua
arrakalatu egin da gazteria berriaren garraisiz
kutsadura grisaren barne eztanda irakinean”

Bada Mikel Zaratekren poesian deskribapenak egiteko orduan handinahiaren jocra berezia, eta garrasia (ez genuke ahaztu behar Munch pintorearen izen bereko margoa) zantzu nagusia da bere poemategian, zantzu behin eta berrirokoa, krisialdian dagoen mundu baten azalpen gisa. Baina ordenatua da mundu hori poesian, argia, zuzena, Lizardiri begira jartzen dena, eta irudi poetikoa deskribapenaren indarrean kokatzen dena, eta ez surrealismoa maite ez duena, eta haren bidetik ez doana.

Beste kontu bat da herri literaturaren eragina. Molde bikoa da liburu honetan berau. Batetik, herri sineskeran eta herri folklorean oinarrituriko mundua dakar Mikel Zaratek, Lauaxetak egiten zuenaren bidetik. Idazle bizkaitar biengan ikus dezakegu moldapen bera, herri sineskera bat hartu eta hari buruz hiru ahapaldi paralelo idatzi. Zaratek horrela jotkatzen du *Patuaren ziztada* deituriko poeman, edo simetria (ahapaldi bi) erabiliz *Erregenez* deiturikoan:

“Egin lo, pitxin,
amatxorekin.

Etorriko dira,
 etorriko,
 erregeak
 gamelu gainetan.
 utziko dituzte
 utziko,
 jostailuak
 oinetakoetan”

Bietan nagusitzen da, gainera, estribiloaren erabilpena, leloaren errepikapena, haur kanta simple bati dagokion moduan.

Baina, herri ateraldiak maite ditu Mikel Zaratek, hizkuntzaren jokoan bizi den esaldi erabateko, oso, eta adierazkorra. Ironiaz eta herri jakintzaz hornituriko esaldiak eta poemak maite ditu idazleak. Eta horrelakoak egiten saiatzen da bera ere: *Baikor eta ezkor*; *Vesubio*; *Batzarritis*.

“Erraldoi otzan ta bihurri,
 pake ta gerraren iturri.
 Orain bare, gero urduri,
 gure bihotzaren iduri”.

Testu laburrak dira, ideia eta irudi argi baten inguruan osatuak, ahozkotasunaren erretorikaz mamituak...

Eta jarraibide honetan ere Mikel Zarateri nabari zaio erromanizismoak hizkuntzari buruz utzi duen aztarnaren seinalea. Hiz-

kuntzaren erabilpena miresten du idazleak, herriaren ahotik, bertsolariaren ofiziotik datorren irtenaldia, ironiaren eta herriaren adierazpide zolia, eta hizkuntzan agertzen bada herriaren izpiritua Euskal Herriaren zorabioan idazten dabil Mikel Zarate.



ETORRIAREN ZORABIOZ MIKEL ZARATEREN poesia lanean ezagutzen dugun azken lana da. Gencroaren arloan bide luzea egina zegoen Mikel Zarate, eta prosa nagusitzen zitzaizolarik hasi bazuen bere literatur lana, poesia arloan bukatu zuen, *Haurgintza minetan* (Txomin Agirre saria, 1972) lanarekin Aurrezki Kutxaren Saria irabazi ondoren eta *Iligidura berdez* (Saria 1976. urtean, 1977an argitaratua) deiturikoarekin. Irun Saria irabaziz. Ez zuen prosa lana albo batera utzia (badago eta argitaratu gaberik *Hizunigu* deituriko lan bat), baina intuizio mundu arin bat lortzeko asmoa ere bazegoen idazlearengan eta horrela lerratu zen poesia lana aztertzeraz.

Egia da bere poesia munduaren helburu nagusia euskaraz ez ziren moldeak lantzea izan zela, eta ikusi dugu nola den normala hori hizkuntza minorizatuen literaturetan. Baina horrez gainetik, uste dut Mikel Zarateren asmoa mundu ikuskera bat zabal-tzea izan zela.

Mundu ikuskera horren barruan baziren haurtzaroko oroitzapenak, bazegoen haurtzaroen aitaren faltaz etxean izandako sufrikarioaren berria, aldatzera zetorren herri batek ematen dion paradoxaren (eta agian, ulertezinaren). sentipena, bazeuden kanpo-

tik etorritako irainei eta aurrejuzkuei erantzun sendo bezain gogorak, hizkuntzarekiko maitasuna, hizkuntzarekin jolasteko gogo nabaria. *Bizkaiko euskal idazleak* (1970) liburua argitaratu zuenean idazle bakoitzarengandik jasotako esaldi eta esapide nabarmenenak jaso zituen, hizkuntzaren izpirituaren aurrean zegoelakoan esaldi haien aurrean gorespenik nagusia agertuz. Esaldi haiek moldatu zuten bere hizkeraren sena, eta haiekin batera baserritarren ahotan bildutako hainbat esaldi berezik ere bai. Literatura jantzia eta herri galaitasuna biak maite zituen batera, eta bateratsu... Biekin lan egin zuen eta era berean maite zituen liburuetan agerturiko euskal molde nabarmena zein herri arimaren espresiorik berezienak.

Bizipenen bultzadaz deitzen da bere poema liburu bat. Eta izenburu horretan agertzen da Mikel Zarateren poetikarik garbiena. Bizitzak bultzatuta idazten zuen, bizipenaren impresioaren pean, dardaran. Bizitzak, esperientziak agintzen zuen lehendabiziz eta haren indarrez, haren miresmenez etortzen zen ondoren hitza eta poema, bizitakoa galtzeko arriskuan balego bezala, idazkera bizitutakoaren egutegi ("egitegi") baten parte balitz bezala, barne autobiografia baten zatia. Bizitza zuen irakaslerik nabarmena eta bizitzaiko esperientziatik jasotzen zuen bere mundu propioaren moldapena. Hor dago euskarak sortzen dion kezka, hor mundu modernoak ekartzen dion mindura... eta maitasuna.


Neurri batean poesia narratiboa zen berea, labirintu batean jarritako oroimenaren orriak bidea ez galtzeko asmotan idatziak.

O L E R T I A K

ETORRIAREN ZORABIOAZ

Mikel Zarate

*Etorriaren zorabioz Gure hizkuntzaren sorreran Dei irrintzinen
bozkarioz Oroitzapenezko glosak ... Ez da poeta Utikan!!! Bat
bitan banutzen zait Denbora hegalarian Euria! Mendigoizaleen
bizipenez Patuaren ziztada Erregenez Bere ilargira joan da
Hiriko dolmena Kaletarren iraultza Betiko leloaren nazkaz Eta ...
Baikor ta ezkor Vesubio "Batzarritis" Telebisio arrotza puskatzen
Oi, Euskal liburu! Gaurko gazteen doinu berri bizi baten garrasiz*



*"Bizkaya, Gipuzkoa
ta gure Araba,
Eta Naparroagaz
lau anaya gara;
beste aldeko irugaz
batzen gareala,
zazpirok bear dogu
gaur salbau Euskara".*

F. ARRESE BEITIA

ETORRIAREN ZORABIOZ

Etorriaren zorabioz,
zorabioaren etorriz,
etorriaren joan-etorri astunean,
joan-etorri astunaren arrabioz,
arrabioaren laborriz,
desespero hutsean
etortzen dira
orri zurira.

Etorriaren zorabioz,
zorabioaren etorriz,
etorriaren joan-etorri arinean,
joan-etorri arinaren bozkarioz,
bozkarioaren oskorriz,
esperantza betean
etortzen dira
orri zurira.

Etorriaren zorabioz,
zorabioaren etorriz,
etorriaren joan-etorri emankorrecan,
joan-etorri emankorraren amodioz,
amodioaren bultzada gorriz,
herriaren iraupenean
etortzen dira
orri zurira.

CURE HIZKUNTZAREN SORRERAN

Zer?

Hats

ur

su

lur.

Nor?

Zu

ni

bat

bi.

Non?

Hor

han

so

lan

jo

hil

bil

jan

lo.

DEI IRRINTZINAREN BOZKARIOZ

Lehenengo euskal liburua
(*Linguae vasconum primitiae*, 1545)
idatzi zuen Etxepareren ohorez.

Aintzinako mendek hilen ezina
ezerezen huts hotzean ilun,
odolgorri baten iraupen grina
Eiheralarreko herrian itun.

Iraupen grinaren ahalegina
etorriaren bultz berrian haurdun,
lehen emaitzaren dei irrintzina
egunsentiko poz argitan txukun.


Dei irrintzinaren muin ozendura
eztizko ziztadaz zazpi haizetan,
sormenaren barne eragindura

erdiminez hegats urdurictan,
eta munduz mundu dantzan plazetan
gure Euskal Herriko literatura.

OROTZAPENEZKO GLOSAK

Negu azkeneko eguzki lainotsuak
 Arrain-en plazenta irakinean
 leherdura minezko hasperen luzez
 udaberriko txalaparta jo zuenean,
 izerdi, bilis ta odolozko
 euri zuri, berde ta gorritan,
 euskaldun jaiio nintzen
 ni ere,
 Felipe,
 euskararen ur basati garden gozoetan,
 izankizun urratuaren pozez,
 arrain koloretsu baten dantza ta printzez.

*Euskaldun jaiio nintzen,
 Euskalduna azi,
 Euskara utziak amak
 Eustan irakatsi;
 Euskara maite maite
 Kabilte mugaz bete,
 Euskara ill' ezkeru
 Er dot gura bizi,
 Donostian Urraren 29. an 1884. an
 Felipe Arrere ta Buita*



“ama, amama, aita, aिताita,
 txatxa, papa, mama,
 beee..., pipi, toto,
 nene, txitxi,
 txetxe, pitxi,
 koko, kokoko,
 kutxu,
 puuu...!,
 paaa...!,
 lolo...”,
 ta beste mila hitz goxo adierazkor

nire haur ezpainetan morkor,
euskaldun hazi nintzen
ni ere,
Felipe ,
egunen ta urteen ekinean
gerrateko burrunbada gorriaren
oihartzun hondagarri zitalcan,
ta hotsitzezko enbrioi dardarti ttikia
urre-zilarrezko krisalida handia
bilakatu zen ene barnean.

Amak zidan
niri ere, Felipe,
amak bakarrik
euskara hutsik
irakatsi,
etxeke
errugabeko
bizialarguntza itotan
aita ta presondegi
zituclarik
egunero gogotan.
Amak zidan irakatsi niri ere,
nire merezimendurik gabe,
jantzi ta janariarekin batera
eman egin bai zidan euskara,
(erdaldun eroen gorrotozko

zapahizkera madarikatua)
cuskaldun euskorren berezko
ta ezkubidezko
hizkuntza bedeinkatua,
zure bihozkada sutsuen
bozkario ta lorriz
hainbeste aldiz
goratua.

Gero, badakizu,
ez nendin endakatu,
endakatzen ez den herri
herri izaten baita beti,
izatea izanez
nahi nuen zaindu,
ta iraun mina duenaren ametsaz eta penaz,
txotxolotasunezko zoramnaren liluraz,
maitezoratu egin nintzen
ni ere,
Felipe,
ta laztanka
ta hitz gozoka
neure egin nuen betiko
zure garraisi:
"Euskara maite-maite,
zabilz neugaz beti...
Euskara hil ezkeru
ez dot gura bizi."

... EZ DA POETA

Mozkortzen ez dena,
ez da poeta.

Etorri sortzailcaren zorabioz
gizonez, emakumez, Jainkoz,
Jainkoz, emakumez, gizonez,
lurrez, urez, landarez, aberez,
haizez, lainoz, zeruz,
emakumez, gizonez, Jainkoz,
Jainkoz, gizonez, emakumez
mozkortzen ez dena,
ez da poeta.

Gizonez, emakumez, hurrez,
haurren aingerutasun xaloz,
gizarteko joan-etorri,
bizinahi, bizimin, minbizi,
asma, amets, itxaropen,
poz eta negarrez
mozkortzen ez dena,
ez da poeta.


Baserriko isiltasun barez,
kale arteko zarata larriz,
burruka ta besarkadaz,
gorroto ta maitasunez,

haginkada ta musuz,
izerdiz, odolez
mozkortzen ez dena,
ez da poeta.

Otsoak, sugcak, arratoiak
sortzen duen nazka ta beldurrez,
bonbak, kainoiak, metrailetak
sortzen duen nazka ta beldur ikara gogorrez,
behiak, ardiak, enarak
sortzen duen maitazarre ta bozkarioz,
astoak, burdiak, traktorak,
kamioiak, trenak, barkuak, abioiak
sortzen duen erosotasun ta atseginez
mozkortzen ez dena,
ez da poeta.

Zeru urdin ta izarren diztiraz,
laino zuri, gorri, beltzez,
haizearen amorru lakar ta laztan gozoz,
mendi ta lautaden berde udaberritsuz,
uraren garbidura kantari ta kutsadura hiletosoz,
suaren dantza berdin ezberdinez,
loreen kolore ta usain biziz,
lurraren sabel emankorrez
mozkortzen ez dena,
ez da poeta.

Jainkoz, gizonaz, emakumez,
egiaz, gezurrez, zalantzaz,
ederrez, itsusikeriaz,
askatasun garrasiz,
betikotasun gurariz,
ctorri sortzailearen zorabiazko harriduraz
mozkortzen ez dena,
ez da poeta.



UTIKAN!!!

Utikan,
gizona
bezain
zaharra
zaren
barneko
harra!

Utikan,
bekaitz
hori
begiluze
horzkari
zatarra!

Utikan
niregandik,
gozamenik
ez
duzun
pekatu
bakarra!

BAT BITAN BANATZEN ZAIT

Gogo barnean dut neska sorgina,
mila nahikundez izorratua,
zapalkuntzen sabel ero zikina,
bihotzaren eme desematua!

Gogo barnean dut andre erregina,
mila laztan gozoz inguratua,
askapenen sabel zuhur birjina,
bihotzaren ama jainkosatua!

Biak ditut beti tira ta bira
bultz ezberdinaren bitasunean
nire nian sortzen bi sokatira.

Biak ditut beti gogo barnean,
nire etsaia ta nire laguna,
Askakeria ta Askatasuna.

DENBORA HEGALARIAN

Gelditu egin zait
nire eskumuturreko erloju zaharra.
Goizaldeko hiruretan gelditu zait.
Baina segundoak, minutuak, orduak
ez dira gelditu.
Aurrera egin dute
etengabeko ekin neurtuan,
geroaren hirritsezko
orain iheskariaren lehencratzean.
Aurrera doaz
mundua bezala,
udaberria bezala,
egunsentia bezala,
nire etxe aurreko soro barrenetik
doan erreka ura bezala,
nire hihotzaren taupada urduriak bezala.
Lehen, orain, gero,
atzo, gaur, bihar,
segundoak, minutuak, orduak
aurrera doaz beti
egunak, asteak, hilak, urteak, mendeak
oraintxeka horobilduz.
Ba datoz, ba doaz,
joan doaz nirekin
nire barnean
denbora hegalariaren
misterio xarmangarrian,
nire niaren hedakuntza
urraduraz txipristinduz.

EURIA!

Euria!
Izpi bustien
kantu mezularia
nire arimaren aitzinean.

Euria!
Hots txalapartariaren
oihartzun gozoa
nire arimaren kristalean.

Euria!
Pinpilimpauxa zurien
aingeru dantza
nire arimaren atartean.

Euria!
Zeru maiteminduaren
musu urdina
nire arimaren sukaldean.

MENDIGOIZALEEN BIZIPENEZ

Argia
argi
da
mendi gailurretan,
hurra,
hur
da
mendi gailurretan,
iluma
ilun.
Ogia
ogi
da
mendi gailurretan,
ura
ur
da
mendi gailurretan,
laguna
lagun.

PATUAREN ZIZTADA

Hiru musker lirain
Euskal Herriko eguzki berdetan,
hiru musker ezain
euskal nekazarien haserretan.

Zizt-zazt,
dsa-dsa-dsa,
sasi zokoan
babesa.

Hiru musker dardarti
larre ondoko sastraka guritan,
hiru musker ausarti
makilen danbada gogor gorritan.

Zizt-zazt,
dsa-dsa-dsa,
nire kolkoan
babesa.

Hiru musker ongile
nire kolkoaren aterpe berotan,
hiru musker gaizkile
euskal ipuinen ikara itotan.

Zizt-zazt,
dsa-dsa-dsa,
nire gogoan
babesa.

ERREGENEZ

Egin lo, pitxin,
amatxorekin.

Etorriko dira,
etorriko,
erregeak
gamelu gainetan.
Utziko dituzte,
utziko,
jostailuak
oinetakotan.

Egin lo, pitxin,
amatxorekin.

Ikusiko dituzu,
ikusiko,
guztiak
egun argitan.
Poztuko gara,
poztuko,
zureak
zure pozetan.

Egin lo, pitxin,
amatxorekin.

BERE ILARGIRA JOAN DA

Jostailuak ekarri dizkiogu

gure mutikoari,

jostailuak anitz:

kometak,

ezpatak,

puntzetak,

pistolak,

fusilak,

kainoiak,

tankeak...

Baina gure mutikoak

txilibitu bat egin du

kainabera batekin,

abioi bat egin du

paper zahar batekin,

ta bere ilargira

joan da

txistuka

gure jostailuak

gure hurrean utzirik.

HIRIKO DOLMENA

maitemaiteizandutnirehiria
etanirehirikobizitzaberria
bainamineznaukatrikuarriak
trikuarritzarberriitsusiak
hirikodolmenarenkuadratura
nirebegitagogoarenkexadura
hutsunegabekohirikodolmena
gogoarenkexadurarcnitomena
hirikodolmenitsudesgizatua
gorputzbizidunrobotenlekua
maitemaiteizandutnirehiria
etanirehirikobizitzaberria
bainamineznaukatrikuarriak
trikuarritzarberriitsusiak

K A L E T A R R E N I R A U L T Z A

Unibertsitate zaharreko zemento erdaldundua
 arrakalatu egin da gazteria berriaren garraisiz
 kutsadura grisaren barne eztanda irakinean.
 Hau ezinaren eginaren
 ezusteko bozkarioaren gainczkadura!
 Lur zapalduaren hasperen gorria,
 lehenaren izerdiz bustiriko luraren hasperen itoa,
 baserritarren lotsaz isilduriko luraren hasperen mutua,
 lur euskaldun emankorraren hasperen hila
 harrigarriri berpiztu da
 arrakalen arnasaz,
 zemento gogor lakarra leher nahirik.
 Hau nire bihotzaren kantuzko zorabioa
 Lizardiren oroitzapenezko lorategian!
 "Ez adi beldur, nere Maiteder:
 baserriz landa nai aumat ager-
 arazi, bazterrik-bazter,
 arroki; ez paitun ezer
 lurbiran ederrik i bezain eder".
 Unibertsitate zaharreko lur euskaldundua
 udaberriko hizi ta edertasunez
 nire ametsaren itxaropenezko atseginetan.

BETIKO LELOAREN NAZKAZ

Ardoaren zorabio eroan
ito dugula diote
haragiaren grina sutsua.
Ardoaren zorabio eroan
Jansenioaren beldurrez
ito dugula diote
sexuaren bultzada.
Magnetofoi berritsuaren
lelo gogaikarriz diote
egia gezurtatuaren irri
ta arbuio maltzurrez.
Tximino ta loroen odolez
elikaturiko masialarien
jakineztasunez diote
nire amorru garretan
txinparten distiraz
mila nazka sortaraziz.
Erdaraz diote...,
nire aitonaren hamasei seme-alabak
agurtu ez dituztenek,
gure aita-amak
gaueko ordu sagaratueta
ikusi ez dituztenek,

gure sasiarte ta ohetako
maiteminduen arnasots grinatsua
entzun ez dutenek,
ezagutzen ez gaituzten
erdaldunek diote.

Ardoaren zorabio croan
ito dugula diote
haragiaren grina sutsua.
Ardoaren zorabio eroan
Jansenioren beldurrez
ito dugula diote
sexuaren bultzada.

Ito dugula diote
gure iraunkortasunaren
harriduraz.

Ito dugula diote...

Esan dezatela!

Baina lehen, orain eta gero
gu hemen, gurean,
ezkonberrien ametsez.

ETA...

... eta arrazoiaren indar zuzena
indarraren arrazoi makurrez
okertu zutelako,
eta arrazoiaren indar mailukaria
indarraren arrazoi mutuz
isildu zutelako,
eta arrazoiaren indar distiratsua
indarraren arrazoi beltzez
ilundu zutelako,
eta arrazoiaren indar bizia
indarraren arrazoi hilgarritz
hil zutelako,
indarraren arrazoi desgizatua
amorru leberkorrez karrikan zehar,
arrazoiaren indar deuseztatuaren*
hilobiko fenixaren odol hautsetan.

* Deuseztatuaren: deuzetatuaren originalean

BAIKOR TA EZKOR

Erdi beterik
ta erdi hutsik
zatoa.

Ezin hobeia
ta indargea
ardoia.

Bero, ausarti,
hotz, ikarati
gogoa.

Baikor ta Ezkor
hi mozkor.

VESUBIO

Erraldoi otzan ta bihurri,
pake ta gerraren iturri.

Orain bare, gero urduri,
gure bihotzaren iduri.

“BATZARRITIS”

Atzo batzarrea,
gaur beste bat,
bihar batzarrea
berriz daukat.

Batzarrea hemen,
hor eta han,
noiz egingo ote
dugu guk lan?

TELEBISIO ARROTZA PUSKATZEN

Ur berdin ezberdinaren
lamia kantu lotiaren kulunkan
su berdin ezberdinaren
sorgin dantza xarmanta
gau berdin ezberdinaren
basajaun altzo zabalcan...,
berrogei neska,
hogetamar mutil
kanta kantari,
kontu kontari,
dantza dantzari
landa apatzaren
ihintz hozkirrian
betiko telebisio
berdin ezberdina ikusten,
gure telebisioa sortzen,
telebisio arrotza puskatzen,
telebisio arrotza puskatzen,
telebisio arrotza puskatzen...

OI, EUSKAL LIBURU!

Oi, euskal liburu!
Zeuk jartzen dituzu
nire nagiak
alperkeriaren
ilunean
saltari;
zeuk jartzen dituzu
nire begiak
bakardadearen
itunean
dantzari;
zeuk jartzen dituzu
nire argiak
dantza alaiaren
sabelean
gidari;
zeuk jartzen dituzu
nire egiak
nire etorriaren
ekinean
hizlari.
Oi, euskal liburu...!

GAURKO GAZTEEN DOINU BERRI
BIZI BATEN GARRASIZ

*"Herri bat, hizkuntza bat,
euskara batua da
oraingo eztabaida
bizi.*

*Herri bat, hizkuntza bat,
euskara batua da
gazteen bultzakada
berri".*

Hil egiten zaigu,
hil egiten dugu,
hil gure herri.
Gure euskara
egin da
mila zati,
euskaldun gazteen
lotsagarri.

"Herri bat, hizkuntza bat...

Bat euskal herriak,
bat euskalkiak,

bat denok beti.
Batu dezagun
euskara
ta ikasi.
Berritu dezagun
Euskal Herri!

"Herri bat. hizkuntza bat..."

LAS YIB-IRATEUA

BEGICUSA - DEKO

Sarr 38.500 / 2004

Gala.

Tokia.



LEZEHAKO UDALR



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Salla

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura

bbk=

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO